



BRETXAKO MERKATUA
C MAILA**BRETXA PLAZA 1**

Egileak eta data: Antonio Cortazar; 1870 / Jose Goicoa; 1898.

Deskribapena

Eraikina hustu eta merkataritza zentro bat jarri dute. Lan horien ondoren lau fatxadetako kanpoaldea baino ez dute kontserbatu. Bertan hainbat lan egin arren, fatxada nagusiak arkuen eta pilastren ordena dorikoaren marrazkian ordena argia eta fina erakusten du, garai isabeldarreko estilo neoklasikoan. Alboetako fatxadek estilo sinpleagoa dute. Antonio Cortazar arkitektoak 1870ean eraiki zuen "U" forman, zumardira begira, erdialdean patio irekiarekin eta burdinazko hesi batez itxia (irudikaturiko oinplanoa). 1898an Jose de Goicoak merkatura eraikitzeke bigarren fasea hasi zuen "U"ren erdiko patioa estaliz. Era horretan, nabe zabalena eratu zen eta eraikina Boulevard aldera beste fatxada zati batekin itxi zuten. Zati horretan lehenengo eraikinaren buruhormen konposizio irizpidea jarraitu zuen (aurretiko bista eta ebakidura irudietan).

Babes erregimena.

- 1.- Babesteko erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: gaur egungo arotzeriak.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorak: harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez dira jasodurak eta handitzeak baimentzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzek: ez.